

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

EKONOMIA SUSTAPENAREN, ENPLEGUAREN, MERKATARITZAREN ETA TURISMOAREN SAILA

Tokiko Gobernu Batzarraren 2026ko irailaren 11ko erabakia, zeinaren bidez ebazten baita ikus-entzunezko proiektuak garatu eta ekoizteko eta gidoiak idazteko laguntzak emateko 2026ko deialdia

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 45.1 eta 4 artikuluetan xedatutakoarekin ildotik, iragarki honen bitartez jakinarazten zaie interesdunei Tokiko Gobernu Batzarraren 2026ko irailaren 11ko erabakia, zeinaren bitartez “2026an Vitoria-Gasteizen ikus-entzunezko proiektuak garatu eta ekoizteko eta gidoiak idazteko laguntzak” deialdi publikoa ebatzi baitzen. Hona deialdiaren edukia:

I. 2023ko apirilaren 21ean egindako ohiko bilkuran, Vitoria-Gasteizko Udalbatzak Vitoria-Gasteizko Udalaren dirulaguntzen ordenantza orokorrari hasierako onespena ematea erabaki zuen. Behin betiko ordenantza 2023ko uztailaren 28ko ALHAOn argitaratu zen (88. zenbakia), eta 2023ko urriaren 1ean jarri zen indarrean, eta haren xedea da Vitoria-Gasteizko Udalaren dirulaguntzak emateko prozeduraren oinarri arautzaile orokorrak ezartzea.

II. 2026ko martxoaren 27an egindako bilkuran, Tokiko Gobernu Batzarrak onetsi egin zituen “2026an Vitoria-Gasteizen ikus-entzunezko proiektuak garatu eta ekoizteko eta gidoiak idazteko laguntzak” emateko deialdi publikoa eta oinarriak (2026ko maiatzaren 4ko ALHAO, 50. zenbakia). Deialdi hori Ekonomia Sustapen, Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sailak proposatu zuen, eta helburu du ikus-entzunezko proiektuak (fikziozkoak, animaziozkoak, dokumentalak, esperimentalak eta telesailak) garatu eta ekoizteko eta zinema-gidoiak idazteko laguntza ekonomikoak emateko baldintzak ezartzea; norgehiagoka bidezko konkurrentzia-erregimena baliatuko da horretarako.

Deialdi honetan aurreikusitako dirulaguntzak 2026/0821.4331.471.02 partidaren kargura finantzatuko dira (“Sormen- eta ikus-entzunezko industrientzako laguntzak”). Indarrean dagoen udal aurrekontuan 110.000,00 euroko zuzkidura du partidak, eta hiru jarduera-ildotan dago banatuta:

— A modalitatea: film luzeen, telesailen eta telesail laburren proiektuak garatzeko laguntzak, di-
rela fikziozkoak, dokumentalak, esperimentalak edo animaziozkoak, haiek jaialdietan, zinemetan,
telebistan eta plataforma digitaletan publikoki emateko: 50.000,00 euro.

— B modalitatea: film laburrak ekoizteko laguntzak: 50.000,00 euro.

— C modalitatea: zinema-gidoiak idazteko laguntzak: 10.000,00 euro.

III. 2026ko ekainaren 1ean amaitu zen eskabideak aurkezteko epea (6. oinarria), eta udaleko Enpresa Zerbitzuko teknikariek, 2026ko abuztuaren 31ko txostenaren bidez, jakinarazi zuten 35 eskabide jaso zituztela epe barruan, deialdiaren 3 modalitateetarako: 10 eskabide, “Ikus-entzunezko proiektuen garapena” modalitatean (A); 16 eskabide, “Film laburren ekoizpena” modalitatean (B); eta 9 eskabide, “Gidoien idazketa” modalitatean (C).

IV. Deialdiaren oinarrietan xedatutakoa betetzen zela egiaztatu ondoren, horretarako eratu-
tako balioespen-batzorde teknikoak (7. oinarria) 2026ko uztailaren 27an eta 29an egindako
bileretan aurkeztutako proiektuak aztertu zituen, eta 11 laguntza ematea proposatu zuen. Era be-
rean, 7 eskabide ukatu dira (1 atzera egiteagatik, eta 6 deialdiaren oinarriekin bat ez etortzeagatik

baztertu direlako). Diruz lagundu daitekeen gutxieneko puntuazioa (50 puntu) lortu duten eta jarduera-modalitate bakoitzean erabilgarri dagoen aurrekontu-kreditua agortu delako dirulaguntzarik jaso ez duten gainerako 17 proiektuak itxarote-zerrenda batean sartuko dira, guztizko puntuazio horren arabera ezarritako ordenari jarraituz.

Jarraian, azaldutakoa zehazten da, hiru jarduera-ildoetan banatuta:

MODALITATEA	HARTUAK	DIRUZ LAGUNDUAK	EZETSIK	ITXARON-ZERRENDA
Proiektuak garatzea	10	5	1	4
Film laburrak ekoiztea	16	5	4	7
Gidoiak idaztea	9	1	2	6
GUZTIRA	35	11	7	17

Tokiko Gobernu Batzarrak du dirulaguntzak emateko eskumena, haren egitekoa baita ekonomia kudeaketa eta, beraz, dirulaguntzen estrategi plana bideratzea, Toki Jaurbidearen Oinarrien Legearen 127.1.g) eta 2. artikuluetan eta dirulaguntzei buruzko ordenantza orokorraren 8.1 artikuluan finkatutakoaren ildotik.

Egiaztatu da badela nahikoa zuzkidura egokirik horretarako, 2026rako onetsitako udal aurrekontuko aipatu partidari atxikita.

Azaldutakoa kontuan hartuz, onesteko eskatzen diren legezko betekizunak betetzen direla egiaztaturik, eta eskumenak eskuordetzeari buruzko 2025eko maiatzaren 16ko erabakia dela medio, Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Saileko zinegotzi ordezkariak erabaki-proposamen hau egiten dio Tokiko Gobernu Batzarrari:

ERABAKIA

Lehenena. Deialdiaren baldintzak betetzen direla egiaztatu ondoren eta aurkeztutako eskabideak balioetsi eta lehentasunak ezarri ondoren, "2026an Vitoria-Gasteizen ikus-entzunezko proiektuak garatu eta ekoizteko eta gidoiak idazteko laguntzak" udal programaren laguntza ekonomikoa ematea I. eranskinean ageri diren eskatzaileei. Eranskin hori erabaki honen zati banaezin gisa gehitu da:

Bigarrenena. Deialdiaren oinarrietan ezarritako betekizunak ez dituztela betetzen egiaztatu ondoren, "2026an Vitoria-Gasteizen ikus-entzunezko proiektuak garatu eta ekoizteko eta gidoiak idazteko laguntzak" udal programaren laguntza ekonomikoa ukatzea II. eranskinean ageri diren eskatzaileei. Eranskin hori erabaki honen zati banaezin gisa gehitu da:

(i) Atzera egiteagatik, eskatutako dokumentazioa zuzendu ez delako.

(ii) Bazterketagatik, diruz lagundu daitekeen gutxieneko puntuazioa (50 puntu) ez lortzeagatik.

Hirugarrenena. Deialdiko zuzkidura ekonomikoa agortuta baldintzak betetzen dituzten zenbait proiektu laguntzarik gabe geratu badira, itxarote-zerrenda hauen sorrera onestea, modalitateen arabera eta puntuazio handienetik txikienera antolatuta (5. oinarria), modalitate bakoitzean saldoa soberan geratuz gero bertan ezarritako hurrenkeran baliatzeko, III. eranskinean ezarritako ordenaren arabera. Eranskin hori erabaki honen zati banaezin gisa gehitu da:

Laugarrenena. Laguntza horien zenbatekoa (110.000,00 euro) kontsignatzea, 2026/08.21.4331.471.02 partidaren ("Sormen- eta ikus-entzunezko industrientzako laguntzak") kontura jasota uztea (5. oinarria), eta ehuneko 80 ordaintzea onestea A modalitaterako (ikus-entzunezko proiektuak garatzeko laguntzak) eta B modalitaterako (film laburrak ekoizteko laguntzak), eta emandako dirulaguntzaren ehuneko 50 ordaintzea onestea C modalitaterako (gidoiak idazteko laguntzak).

Gainerako ehuneko 20 eta ehuneko 50, hurrenez hurren, deialdiaren oinarrietan eskatutako dokumentazioa aurkeztu eta udalak oniritzia eman ondoren ordainduko da; dokumentazioa 2027ko urriaren 31 baino lehen aurkeztu beharko da.

Bosgarrena. Dirulaguntzen onuradunek deialdiaren oinarrietan ezarritako betebeharrak betetzen ez badituzte, laguntza horiek bertan behera utzi ahalko dira eta, laguntza osoa edo zati bat ordainduta badago, jasotako laguntza itzultzeko eskatuko zaie, dagozkien atzerapen-interesak gehituta.

Seigarrena. Udalaren Enpresen Zerbitzuko teknikariak izendatzea enpresa-proiektu horien jarraipenaren arduradun.

Zazpigarrena. Erabaki hau udalaren webguneko Gardentasun Atarian eta ALHAOn argitaratzea.

Zortzigarrena. Ebazpen honen kontra, administrazio-bidea agortzen baitu, zuzenean aurkez daiteke administrazioarekiko auzi-errekurtsoa Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegietan, bi hilabeteko epean, jakinarazi edo argitaratzen den egunaren biharamunetik.

Nolanahi ere, aldez aurretik aukerako berraztertze errekurtsoa aurkez daiteke erabakia hartu duen organoaren aurrean, hilabeteko epean, jakinarazi edo argitaratzen den egunaren biharamunetik —kasu horretan, ezingo da administrazioarekiko auzi-errekurtsorik aurkeztu hori berariaz edo ustez ebatzi arte—. Ondoren, ebazpen espresua ematen bada, bi hilabeteko epea izango da administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkezteko, egintza jakinarazi edo argitaratzen den egunaren biharamunetik kontatuta; bestela, edozein unetan aurkeztu ahalko da, berariazko araudiaren arabera Administrazioaren isiltasunaren ondorioak sortzen diren egunaren biharamunetik aurrera.

Vitoria-Gasteizen, 2026ko irailaren 11n

*Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta
Turismoaren Saileko zinegotzi ordezkaria*
MARÍA NANCLARES CABALLERO

I. ERANSKINA. EMANDAKO LAGUNTZEN ZERRENDAA

1. IKUS-ENTZUNEZKO PROIEKTUAK GARATZEKO LAGUNTZAK						
ZENBAKIA	ESKATZAILEA	PROIEKTUAREN IZENA	PUNTUAZIOA	DIRULAGUNTZA TEORIKOA	ESKATUTAKO LAGUNTZA	DIRULAGUNTZA
1	B16470015	Horma	79,5	10.000,00 €	10.000,00 €	10.000,00 €
2	B06611818	Una mujer europea	75,5	10.000,00 €	10.000,00 €	10.000,00 €
3	B01497270	Fedea	75	10.000,00 €	10.000,00 €	10.000,00 €
4	16297763D	Xare	70,5	10.000,00 €	10.000,00 €	10.000,00 €
5	B01257856	Hermanos Pou, La cuerda invisible	67	10.000,00 €	10.000,00 €	10.000,00 €
Guztira						50.000,00 €

2. IKUS-ENTZUNEZKOAK EKOIZTEKO LAGUNTZAK: FILM LABURRAK						
ZENBAKIA	ESKATZAILEA	PROIEKTUAREN IZENBURUA	PUNTUAZIOA	DIRULAGUNTZA TEORIKOA	ESKATUTAKO LAGUNTZA	DIRULAGUNTZA
6	B01257856	Conej goi goian	86,2	10.000,00 €	10.000,00 €	10.000,00 €
7	16297763D	Calabobos	72,1	10.000,00 €	10.000,00 €	10.000,00 €
8	22726708V	Sehaska Garaiak	71,7	10.000,00 €	10.000,00 €	10.000,00 €
9	B21672068	Burupuztuak	69,7	10.000,00 €	10.000,00 €	10.000,00 €
10	B16470015	Reclutas	67,5	10.000,00 €	10.000,00 €	10.000,00 €
Guztira						50.000,00 €

3. GIDOIAK IDAZTEKO LAGUNTZAK						
ZENBAKIA	ESKATZAILEA	PROIEKTUAREN IZENBURUA	PUNTUAZIOA	DIRULAGUNTZA TEORIKOA	DIRULAGUNTZA	
11	72833456T	La Maupín	70	10.000,00 €	10.000,00 €	
Guztira					10.000,00 €	

II. ERANSKINA. UKATUTAKO LAGUNTZEN ZERRENDAA

1. IKUS-ENTZUNEZKO PROIEKTUAK GARATZEKO LAGUNTZAK				
ZENBAKIA	ESKATZAILEA	PROIEKTUAREN IZENBURUA	PUNTUAZIOA	UKATZEKO ARRAZIOA
1	B16482945	Un lugar sin regreso	-	Ez du zuzentzen A.2 atalean eskatutako dokumentazioa. ATZERA EGITEA

2. IKUS-ENTZUNEZKOAK EKOIZTEKO LAGUNTZAK: FILM LABURRAK				
ZENBAKIA	ESKATZAILEA	PROIEKTUAREN IZENA	PUNTUAZIOA	UKATZEKO ARRAZIOA
2	B01583400	Un inquisidor entra en Baztán	49,9	B.3.2. Ez du dirulaguntza eskuratzeko gutxieneko puntuazioa lortu
3	72842703R	Catharsis	49,6	B.3.2. Ez du dirulaguntza eskuratzeko gutxieneko puntuazioa lortu
4	J22946362	Sebastián	49,1	B.3.2. Ez du dirulaguntza eskuratzeko gutxieneko puntuazioa lortu
5	J22946362	¿Eeooo?	48,6	B.3.2. Ez du dirulaguntza eskuratzeko gutxieneko puntuazioa lortu

3. GIDOIAK IDAZTEKO LAGUNTZAK				
ZENBAKIA	ESKATZAILEA	PROIEKTUAREN IZENA	PUNTUAZIOA	UKATZEKO ARRAZIOA
6	18594019Z	Sincronía	46,25	C.3. Ez du dirulaguntza eskuratzeko gutxieneko puntuazioa lortu
7	22726708V	La deuda del poder	41,75	C.3. Ez du dirulaguntza eskuratzeko gutxieneko puntuazioa lortu

III. ERANSKINA. ITXARON-ZERRENDAN DAUDEN PROIEKTUEN ZERRENDAA

1. IKUS-ENTZUNEZKO PROIEKTUAK GARATZEKO LAGUNTZAK					
ZENBAKIA	ESKATZAILEA	PROIEKTUAREN IZENA	PUNTUAZIOA	DIRULAGUNTZA TEORIKOA	EMANDAKO DIRULAGUNTZA
1	30666890R	Sasia	66,5	10.000,00 €	0,00 €
2	B01583400	Maverick	61	10.000,00 €	0,00 €
3	B16470015	Aguacero	57	10.000,00 €	0,00 €
4	B01257856	Loria ukitu genuen	54,5	10.000,00 €	0,00 €

2. IKUS-ENTZUNEZKOAK EKOIZTEKO LAGUNTZAK: FILM LABURRAK					
ZENBAKIA	ESKATZAILEA	PROIEKTUAREN IZENA	PUNTUAZIOA	DIRULAGUNTZA TEORIKOA	EMANDAKO DIRULAGUNTZA
5	B44928406	Amak beti babestuko zaitu	67,05	10.000,00 €	0,00 €
6	B21903539	Como siempre	67	10.000,00 €	0,00 €
7	B16470015	Buruhandi ausarta	64,5	10.000,00 €	0,00 €
8	B01257856	Isinohana	62	10.000,00 €	0,00 €
9	B01478320	Después del fuego	61,15	10.000,00 €	0,00 €
10	B27583467	Carretera secundaria	60	10.000,00 €	0,00 €
11	B01579127	El sopapo terapéutico	59,75	10.000,00 €	0,00 €

3. GIDOIAK IDAZTEKO LAGUNTZAK					
ZENBAKIA	ESKATZAILEA	PROIEKTUAREN IZENA	PUNTUAZIOA	DIRULAGUNTZA TEORIKOA	EMANDAKO DIRULAGUNTZA
12	72397189C	Fragua	67,62	10.000,00 €	0,00 €
13	72754703E	Quark	62	10.000,00 €	0,00 €
14	72747817J	La tormenta que viene	61,5	10.000,00 €	0,00 €
15	Y9801735T	Tánatos	60	10.000,00 €	0,00 €
16	16577961K	La llave propia	59,75	10.000,00 €	0,00 €
17	72749483T	Después de todo	58,25	10.000,00 €	0,00 €